

Zerk gidatzen du inurri talde baten mugimendua?

SYLVAIN DUBÉY-CC BY



ALEMANIAKO ikerlari talde batek inurri multzoen higidura aztertu berri du, baita ondorio harrigarriak atera ere. Ikerlana *The Science of Nature* aldizkarian argitaratu dute.

Behatu dutenez, habiatik elikagaiak dauden tokiraino joateko abiadura %50 motelagoa da alderantzizko ibilbidea egiteko baino. Zenbat eta inurri gehiago ibilbidean, orduan eta azkarrago higitzen dira, estropezurik egin gabe gainera.

Halaber, zenbat eta inurri gehiago, zabalagoa da hartzen duten eremua, beti ere helmuga berera heltzeko. Bidean bi inurrik topo egiten badute, une hori informazioa trukatzeko baliatzen dute. Elikagaia aurkitu bitartean ia abiadura konstantean egiten dute ibilbide osoa, baina behin jatekoa atzemanda, habiako elementu guztiak helburu berarekin hasten dira lanean. Lehen banatuta zegoen tropela batu eta ezagutzen ez dugun logika aplikatzen hasten da. Logika horrek ez du zerikusirik gizakiok autobideetan, adibidez, erabiltzen dugunarekin; hor, zenbat eta automobil gehiago, orduan eta motelagoa da abiadura.

Ikerlarien helburu berria da inurrien logika ulertu eta gizakiaren eremura ekartzea. ■

Txernobyngo istripuaren urteurrena

APIRILAREN 26AN 29 urte bete ziren Txernobyleko zentral nuklearra lehertu zenetik. Leherketaren ondorioz material erradioaktibo ugari barreiatu zen munduan zehar. Ukrainan bertan, erradioaktibitatea ez zen uniformeki barreiatu, gune batzuetan asko eta besteetan gutxi baizik.

Zentrala estali egin zuten eta orain bigarren estalkia eraikitzen ari dira, lehenengoa ezin baita desmuntatu. Bestalde, oso gutxi dakigu inguruan bizi direnen osasunaz. Esaterako, zentraletik hurbil samar bizi diren ume eta gazteen %80 baino gehiagok bihotzeko arazoren bat dutela. ■



MATTI PAAVONEN-CC BY SA

Koagulazioa azkartzen duen polimeroa sortu dute

Seattle-n dagoen Washington Unibertsitatean, Nathan White ikerlariak zuzendutako lantaldeak odolaren koagulatzea azkartzen duen polimeroa sortu du: PolySTAT. Injektaturik, odoljario larriak geldiarazteko erabil liteke. Orain arte arratoiekin egin dituzte saioak, eta hemendik aurrera pertsonengan probatzen hasiko dira.

ttiki.com/339034
(Gaztelaniaz)

Neutroiak detektatzeko bide berriak

Material erradiaktiboa munduko leku batetik bestera garraiatzen dela gauza jakina da, eta askotan legez kanpo egiten dela ere bai. Orain arteko detektagailuak helio-3an oinarritzen dira, eta material hori lortzea oso zaila denez, bide berriak topatu nahian dabilza ikerlariak. Beirakutako karbono apar boroduna izan daiteke horietako bat; merkea, gainera.

ttiki.com/339035
(Gaztelaniaz)

Nepalgo lurrikara eta Himalaia

Milaka hildako eta zauritu utzi zituen 7,8ko magnitudeko lurrikarak Nepal. Gertakariak zuzeneko harremana du Himalaiaren sorrerarekin: India, urtero, 3,2 zentimetro mugitzen da Asiarantz, eta horrek Himalaia altxarazi eta inguruko lurretan izugarizko lurrikarak sortzen ditu.

ttiki.com/339036
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16